Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales

## ARAUGINTZAKO EBALUAZIO TXOSTENA

## INFORME DE EVALUACIÓN NORMATIVA

**12/2014 FORU ARAUA, azaroaren 6koa, zeinaren bidez sortzen baita «Kabia» izeneko foru organismo autonomoa, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta gauzatzeko.**

**NORMA FORAL 12/2014, de 6 de noviembre, por la que se crea el organismo autónomo foral «Kabia» para la gestión, prestación y ejecución de servicios sociales.**

***1.- Sarrera.***

Kontuan hartuta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 6.4 artikuluan araututako, foru arau guztiek – Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzekoak izan ezik– Batzar Nagusien araugintza ebaluatzeko prozedura bete beharko dute, indarrean sartzen direnetik urtebete igarotzen denean. Horretarako, urtebeteko epea amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan, Foru Aldundiak txosten bat bidaliko die Batzar Nagusiei ondorengo hauei erantzunez: aplikazioan izan diren arazoak; sortutako ondorioak; lortutako helburuak; proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura; arauaren benetako betetzea; araugintza garatzeko beharrak; aipatutako foru-arauaren aplikazioagatiko judizializazio-kasuak.

***1.- Introducción.***

Conforme dispone el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, todas las Normas Forales, con excepción de las que aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y las que aprueban la Cuenta General del Territorio Histórico, serán sometidas al procedimiento de evaluación normativa por las Juntas Generales, una vez transcurrido un año desde su entrada en vigor. A tal efecto, dentro de los dos meses siguientes a la finalización de dicho plazo de un año, la Diputación Foral remitirá un informe a las Juntas Generales sobre los siguientes extremos: Problemas que se han producido en su aplicación; Efectos producidos; Objetivos alcanzados; Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados; Cumplimiento efectivo de la norma; Necesidades de desarrollo normativo y casos de judicialización por aplicación de la citada Norma Foral.

***2- Foru arauaren onarpenarekin proposatutako helburuak.***

Aztertu den foru arauaren bidez "Kabia" foru

***2.- Objetivos propuestos con la aprobación de la norma foral.***

Mediante la norma foral analizada se creó el

ORGG091379C7-D6BB-42ED-BB04-4354FCA88DBB 2017-02-15T10:20:41Z

erakunde autonomoa sortu zen. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen 2007ko martxoak 2ko 42007 Foru Arauko 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz eratu zen foru erakunde hori. Foru erakunde autonomoaren helburu nagusia da Gipuzkoako Foru Aldundiak agintzen dizkion bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak kudeatzea, ematea eta gauzatzea, Eusko Legebiltzarrak 2008ko abenduaren 5ean onartutako Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak ezarritako eskumen esparruan.

organismo autónomo foral «Kabia», constituido con arreglo a lo dispuesto en el artículo 4 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Son fines esenciales del organismo autónomo foral la gestión, prestación y ejecución de aquellos servicios y funciones que le sean encomendados por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el ámbito competencial de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

***3.- Arau bidez garatu beharra.***

Aipatu foru arauko xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, Diputatuen Kontseiluak 4/2014 Foru Dekretua onetsi zuen 2014ko abenduaren 22an, "Kabia" Foru Erakunde Autonomoaren estatutuak onesteko ( 2015eko otsailaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 20 zk.).,

***3.- Necesidades de desarrollo normativo.***

De conformidad con la disposición adicional de la citada norma foral, el Consejo de Gobierno Foral aprobó el Decreto Foral 46/2014, de 22 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos del Organismo Autonomo Foral «Kabia» (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 20 de fecha 2 de febrero de 2015).

***4.- Sortutako ondorioak eta arauaren benetako betetzea.***

Gipuzkoako Batzar Nagusiek 2015eko azaroaren 2an emandako 11/2015 Ebazpenaren bidez egindako proposamenari erantzunez, eta udaletako egoitza zentroak Kabia foru erakunde autonomoan bateratzeko prozesua aurrera eramateko, txosten orokor bat egin da adostutako ereduaren, egutegiaren eta plan ekonomikoaren inguruan.

***4.- Efectos producidos y cumplimiento efectivo de la norma.***

En respuesta de la petición realizada por las Juntas Generales de Gipuzkoa a través de la Resolución 11/2015, del 2 de noviembre y con el fin de llevar a cabo el proceso de convergencia de los centros residenciales municipales en el organismo autónomo foral Kabia se elaboró un Informe general relativo al modelo acordado, la propuesta de calendario y el plan económico.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen

El Consejo de Gobierno Foral de la Diputación

2017-02-15T10:20:41Z
ORGG091379C7-D6BB-42ED-BB04-4354FCA88DBB

Kontseiluak, 2016ko urriaren 11n, erabaki zuen onestea Kabia foru erakunde autonomoak adostutako eredua, egutegi proposamena eta plan ekonomikoa, udal egoitza zentroak Kabia foru erakunde autonomoan batzeko prozesua garatu ahal izateko.

Foral de Gipuzkoa en sesión de 11 de octubre de 2016 adoptó el Acuerdo por el que se aprueba el Informe general relativo al modelo acordado por el organismo autónomo foral Kabia, la propuesta de calendario y el plan económico, con el fin de llevar a cabo el proceso de convergencia de los centros residenciales municipales en el organismo autónomo foral Kabia.

Proposatutako egutegiaren arabera, aurreikusten da 2017-2019 aldian urteko lau egoitza integratzea Kabian; horrela, kontuan hartuta lau egoitza jada integratuta daudela, 2019an osatuta egongo litzake 16 egoitzak bateratzeko prozesua.

De acuerdo con el calendario propuesto, se prevé que para el período 2017-2019 se integren en Kabia cuatro residencias por año, lo que sumado a las cuatro residencias ya integradas, daría por completado en el 2019 el proceso de convergencia de las 16 residencias.

***5.- Foru arauaren aplikazioan sortutako arazoak.***

***5.- Problemas en la aplicación de la norma foral***

Logikoa da pentsatzea foru arau honen onespenarekin bilatzen dena bezain garrantzitsua den bateratze prozesu batean egokitzapenari lotutako hainbat zailtasun egotea: kudeaketa ereduei dagokienez, laguntza ereduei dagokienez, nahiz egun egoitzetara atxikita dauden langileen erregimen juridikoari dagokionez. Hamasei errealitate desberdin batu eta bateratzea prozesu konplexua da, zalantzarik gabe. Erronka horiei guztiei erantzuteko, eta erronka horiek kudeaketan sor ditzaketen zailtasunak kontuan hartuta, txosten orokor honek gainerako hamabi egoitzetako zailtasunen kuantifikazio graduala egiten du.

Resulta lógico y previsible que un proceso de creación y convergencia de tal calado como el que se pretende con la aprobación de la norma foral entrañe numerosas dificultades de adaptación, tanto en los modelos de gestión, de asistencia como en cuanto al régimen jurídico del personal actualmente adscrito a las residencias. Converger y dar forma unitaria a dieciséis realidades es un proceso a todas luces complejo. Para dar respuesta a los retos y, teniendo en cuenta el nivel de dificultad que generarán en la gestión, el Informe general elaborado realiza una cuantificación gradual de las dificultades en las doce residencias restantes.

***6.- Lortutako helburuak eta horien eta proposatutako helburuen arteko lotura.***

***6.- Objetivos alcanzados y correspondencia entre éstos y los objetivos propuestos.***

2017-02-15T10:20:41Z
ORGG091379C7-D6BB-42ED-BB04-4354FCA88DBB

Foru araua onetsi zen betetzeko Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa, bertan ezartzen baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eskumen araubidea. Hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 30. artikuluko 1. atalak dioenez, "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan, lege honek eta lege honen garapenerako xedapenek foru aldundien esku uzten dituzten eskumenak haien lurralde-eremuan erabiltzeko ardura foru aldundien gizarte zerbitzuena izango da".

La norma foral se aprobó con el fin de dar cumplimiento a la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, que establece el régimen competencial en el Sistema Vasco de Servicios Sociales. En concreto, dispone el apartado 1 del artículo 30 que «las diputaciones forales, a través de los servicios sociales forales, serán las responsables de ejercer, en su ámbito territorial, las competencias atribuidas a ellas por la presente Ley y sus disposiciones de desarrollo en el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales».

Orain arte, Kabiako Gobernu Batzordeak onetsi ditu: Kabiaren 2016-2019 aldirako Plan Estrategikoa, Kabiaren 2016rako Kudeaketa Plana, Kabiaren eredu integrala eta Kabian integratuta ez dauden egoitzak bateratzeko txostenak.

En la actualidad, se han aprobado por la Junta de Gobierno del Kabia el Plan Estratégico de Kabia 2016-2019, el Plan de gestión de Kabia para el 2016, así como la definición del modelo integral de Kabia y los Informes de convergencia de las residencias que no están integradas en Kabia.

2016tik 2019ra, egoitzak pixkanaka Kabian integratzen doazen heinean, Kabiako zerbitzu orokorren egitura ere pixkanaka osatuz joango da.

A medida que las diferentes residencias se vayan integrando en Kabia en el período comprendido de 2016 a 2019, deberá de irse completando progresivamente la estructura de los servicios centrales de Kabia.

***7.- Judizializazio kasuak.***

***7.- Casos de judicialización.***

Gaur arte ez da judizializazio kasurik egon foru arauaren aplikazioan.

Hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en la aplicación de la norma foral.

***Laburbilduz***

***En resumen***

Aztertu den foru araua eraginkorki betetzen ari da, proposatutako helburuak lortzen ari dira, eta

La Norma Foral analizada está siendo cumplida de manera efectiva, se están alcanzando los objetivos

2017-02-15T10:20:41Z
ORGG091379C7-D6BB-42ED-BB04-4354FCA88DBB

ezarritako batze eta bateratze prozesuari dagokionez, 16 udal egoitzak integratzeko aurreikusitako egutegia betetzen ari da.

propuestos y, en cuanto al proceso de convergencia e incorporación establecidos, el calendario previsto de integración 16 centros residenciales municipales se está cumpliendo.

Donostian, 2017ko otsailaren 7an

**Gizarte Polikako Departamentuko foru diputatua**

**Maite Peña López**

2017-02-15T10:20:41Z

ORGG091379C7-D6BB-42ED-BB04-4354FCA88DBB



*Dokumentu honen osotasuna eta sinadura baieztatzeko, egiaztapen kode seguru hau sar dezakezu egoitza elektronikoa: www.gfaegoitza.eus*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: www.gfaegoitza.eus*
ORGG091379C7-D6BB-42ED-BB04-4354FCA88DBB 2017-02-15T10:20:41Z